

Gerra inperialistaren aurka mobilizatzer deitu du EHKSk

Aldarrikatu du beharrezkoa dela “gerrari eta langile-klasearen pobretzeari aurre egingo dion erreferente iraultzaile bat eratzea”, “nazioartean hedatuta eta herrialde bakoitzean sustraituta” egongo dena. **6-7/**



Munduko gastu militarra hirukoiztu egin da Gerra Hotzetik

Ekonomia handienek beren nagusitasunari eusteko eta negozioa egiteko modu bat aurkitzen dute gatazka belikoetan. **4/**

Europaren berrarmatzean negozioa egiteko aukera dagoela azpimarratu du Jaurlaritzak

Ubarretxenak esan du “defentsan aukera berriak egon” daitezkeela “gure industriarentzat”, eta egoera “aprobetxatu” behar dela. **2/**





Gastu militarra 10.000 milioi eurotik gorakoa izan da PSOEren agintaldian

Espainiako Estatuko Gobernu Kontseiluak beste 2.084 milioi euroko inbertsio bat onartu du “defentsan”, “eraginkortasuna hobetzeko eta instalazioak mantentzeko” beharra argudiatuta. Hori gehituta, Pedro Sanchezen agintaldian, 10.000 milioi euro baino gehiago bideratu dira gastu militarretara.

Bestalde, finantza-entitateek aditzera eman dute negozioarako aukerak ireki daitezkeela gerrarekin. Espainiako Bankuak dio ez duela “inolako oztoporik ikusten finantza-erakundeek defentsa-proiektuetan parte hartzeko”, eta finantza-sektoreak bertan esku hartzea sustatu du, nahiz eta entitate bera izan den berriki gastu militarrek zor publikoan eragin zitzaketan igoera “arri-kutsuen” berri eman duena. Santander edo La Caixa bankuek interesa erakutsi dute jada sektoreko inbertsioetan.

Berrarmatzea inposatuko du Sanchezek, Diputatuen Kongresuak onartu gabe

Pedro Sanchezek erabaki du ez dela egongo armamentuan egindako gastuaren igoerari buruzko bozketarik Espainiako Diputatuen Kongresuan, nahiz eta zehaztu duen helburua dela, 2029rako, kostu hori BPGaren %2ra iristea. Sanchezek bere burua zuritu du esanez “beste administrazio publiko batzuek eta beste gobernu batzuek legez kanpoko eta bidegabeko gerran sartu zutela Espainia, parlamentutik pasatu gabe”. Presidentearen hitzetan, gainera, gai batzuk “gobernuak kudeatuko ditu zuzenean, bozketarik egin beharrik gabe”.

Europar Batasunaren berrarmatzea defendatu du CEOEk

Gasteizen berriki izan den Arabako Ekonomia Foroan, CEOE patronaleko presidente Antonio Garamendiri galdetu diote Europar Batasunaren berrarmatze-planaren inguruan, eta hura babestu du. “Gustatu ala ez gustatu”, egin beharreko zerbait dela adierazi du. “Ideologiak alde batera utzi eta errealtatea landu behar da”, azaldu du: “Europak ezin dio inola ere uko egin bere lidergo moral eta etikoari”.

Europaren berrarmatzean negozioa egiteko aukera dagoela azpimarratu du Jaurlaritzak

Gorakada belikoa areagotzen duten neurriak negozioa egiteko aukera gisa ikusten ditu Eusko Jaurlaritzak. Hala adierazi du Maria Ubarretxena bozeramaileak, Europar Batasuna berrarmatzeko plana defendatzeaz gain. Ubarretxenak mehatxutzat jo du “Ukraina inbaditu duen Putin”, eta kezka erakutsi du AEBek esan izanagatik ez dutela “gehiago Europa defendatuko”. Jeltzaleak aldarrikatu du Europak ez daukala “defendatzea beste erremediorik”, gerra-industriari bultzada emateko asmoa ezkutatu gabe: esan du “defentsan aukera berriak egon” daitezkeela “gure industriarentzat”, eta egoera “aprobetxatu” behar dela.

Gastu militarri buruzko eztabaidan eragin nahian ari dira hedabideak

More in Common erakundearen arabera, Espainiako Estatuko biztanleen %57k diote murrizketak onartuko lituzketela zerbitzu publikoetan, defentsa-aurrekontua handitzeko. Bestek beste *Europa Press* agentziak zabaldu du ikerketa, eta zehazten du %64 daudela Ukrainara “baketropak” bidaltzearen alde.

Galdeketa 2025eko martxoan 2.000 pertsonari egin omen zitzaion, baina ez dute eman laginari buruzko xehetasunik, ezta galderak egiteko moduari buruzko xehetasunik ere. Hala, fidagarritasuna zalantzan jarri dute hainbat iturrik, informazioa zabaldu duen erakundearen

izaera ere kontuan hartuta. *More in Common*-ek Frantzia, AEBetan, Erresuma Batuan eta Alemanian ditu egoitzak, eta bere web-orrian dio “narratiba” espezifikoak “sustatzen” dituela. Gainera, bere finantzaketa *Open Society Foundations*-etik dator; armagintzarekin loturak dituen erakunde bat.

Pedro Sanchezek hitzeman du “defentsan inbertsioa handitzeko” ez duela “gastu sozialean zentimo bat ere murriztuko”, baina aipatutako azterketa argitaratu duten unea eta ikuspegia ikusita, zalantzan dago iritzi publikoaren neurrak erreal bat ote den, edo gastu militarri buruzko eztabaida politikoan eragiteko saiakera bat. Izan ere, beste inkesta batzuek kontrakoa iradokitzen dute: Sigma Dosen azterketa batek dio Espainiako Estatuko boto-emaeen %72,8k uko egiten diotela gastu militarra handitzeari, zergak igotzea baldin badakar.



Militarren ordainsaria igo du Espainiako Gobernuak

Espainiako Ministroen Kontseiluak martxoan onartu zuen Espainiako Armadako kide guztiei ordainsaria igotzea, hilean 200 euro. Militarren osagarri espezifikoaren osagai orokorraren igoeran islatuko da hori. Gainera, marinelen zako ezarritako beste ordainsari gehigarri bat indartuko dute, hilean 100 eurokoa. 2024an zehar kobratu dute hori dagoeneko, eta esan nahi du sektore horretan, dena, hilean 300 euro gehiago jasoko dituztela. Soldada-igoerak 400 milioi euroko inbertsio gehigarria ekarriko du.



Macron:
“Frantziak
bere
aurrekontu
militarra
bikoiztuko du”

Emmanuel Macron Frantziako Estatuako presidentea otsailaren iragarri zuen aurrekontu militarra bikoizteko asmoa duela. Aurreratu zuen gobernuak erositakotak egingo dituela gerra-materialean eta inbertsioak izango direla proiektu handietan, eta horrek estatuaren aurrekontu militarra gaur egungo BPGaren %2tik 120.000 milioi eurora igoko lukeela. Horrez gain, presidentea Europar Batasuneko eta NATOko herrialdeei eskatu zien bere urratsak jarraitzeko, gaineratuz “Europako funtsak ere” behar direla halako mugimenduak egiteko. Macronen ustez, “gastu publiko gehiago eta finantzaketa pribatu gehiago behar dira, Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa-eredua aldatuz”.

Europar Batasunaren
berrarmatzeak kolokan
jarri ditu ongizate-
estatuak


EBko aurrekontu militarrek aurrekaririk gabeko gorakada izaten ari dira. Hainbat herrialdek BPGaren %2,5 gaindituko duten igoerak iragarri dituzte datozen urteetarako, eta Europako Batzordeak 800.000 milioi euro mobilizatuko lituzkeen

Gastu
militarrari
eta prestazio
sozialei buruzko
eztabaida
Frantziako
Estatuan

François Bayrou Frantziako lehen ministroak martxoan zioen “erfortzu militarrek” ez diola “eredu sozialari eragingo”, baina politikariek eta adituek iradoki dute indar armatuei zuzendutako baliabideak, partzialki behintzat, Gizarte-Segurantzaren zenbait alderdi murriztu

lor daitezkeela. Antoine Foucherrek, esaterako, honakoa argudiatu du: “Pentsioen karga gero eta handiagoak eta gastu sozialak, gaur egun BPGaren heren bat osatzen dutenak, eskura dauden baliabideak gainditu dituzte”. Bere esanetan, AEBetako parapetoarekiko mende-kotasuna gero eta txikiagoa da, baina baliteke Eliseoak “aurrekontuen lehentasunak berrikusi” behar izatea, eta horrek “ongizate-estatuaren arauak berriz aztertzea” ekar lezake.

Catherine Vautrin Osasun ministroak “alternatibak” proposatu ditu jada, “enpleguaren eta produktibitatearen hazkundera sustatzea” adibidez, “defentsa eta babes soziala finantzatzeko”. Kritiko batzuek gaineratu dutenez, gastu militarren inguruko alarma “erabaki zailak” justifikatzeko erabiltzen ari dira, bereziki, eskubideetan edo zerbitzu publikoetan murrizketak eragiten dituztenean.



berrarmatze-plan bat proposatu du. Chatham House *think tank*-aren arabera, gastu militarra “demokrazia defendatzeko onura publikorik handiena” da, baina pentsioetan eta osasungintzan murrizketak beharko dira.

Erresuma Batuan, gobernu laboristak iragarri du aurrekontu militarra BPGaren %2,5era igoko duela 2027rako, 2030eko hamarkadan %3ra iristeko, eta dagoeneko murriztu dituzte trantsizio hori finantzatzeko prestazio sozialak. Alemaniak ere bere zerga-politika malgutu du berrarmatzeari lehentasuna emateko, Friedrich Merzek berretsi egin baitu finantzaketa militarreko zorpetzea ahalbidetzen duen erreforma, “galga fiskala” bertan behera utzita.

Modu bateratuan
berrarmatzeko plan bat adostu
du Europar Batasunak

EBko buruek material militarren ekoizpena eta erosketa handitzeko plan bat onartu zuten martxoan, zor komunaren jaulkipena eta armamentu-gastuaren murrizketak kentzea barne. Europako Batzordearen arabera, datozen lau urteetan 800.000 milioi euro mobilizatuko dituzte, estatu bakoitzeko baliabideak eta erkidegoaren finantzaketa konbinatuz. Ekimenak blokearen politikaren aldaketa bat dakar, historikoki NATOren menpe egon baita.

Ukrainako gerrari eta AEBen rolari buruzko ziurgabetasun-egoera batean kokatzen da akordioa. 27 estatu kideetatik 26k babestu dute; guztiek, Hungariak izan ezik. Ukrainara laguntza militar gehiago bidaltzeko modu berriak ere aztertzen ari dira, 20.000 eta 30.000 milioi euro arteko pakete batekin, urte honetarako.



Gerra edo krisi posibleen aurka
prestatzeko plan bat aurkeztu
du Bruselak

Europako Batzordeak herritarrei eskatu die “krisi posibleei aurre egiteko prestaketa indartzeko”. Bruselak planteatzen du etxe bakoitzak 72 ordu kanpo-laguntzarik gabe irauteko adina ur-erreserba, elikagai, sendagai eta bateria izan beharko lukeela, “larrialdietarako”. EBren hitzetan, beharrezkoa da “segurtasun-aurreikuspenak hondatu izanari” aurre egitea, “eraso armatuak, klima-hondamendiak eta zibererasoak bezalako mehatxuen ondorioz”.

Eskaera 2030era bitartean berrarmatzeko neurrien sorta zabal baten barruan sartzen da. Armategiak erosteko planak, egoera kritikoan dauden sendagaiei buruzko arauak eta klima egokitzeko politikak jasotzen dira bide-orrian.

Alemaniak Konstituzioaren
erreforma onartu du, gastu
militarra handitzeko

Alemaniko Parlamentuak martxoan onartu zuen gastu militarra handitzea ahalbidetzen duen erreforma konstituzionala. Horri esker, zorpetzeko zehaztutako mugatik kanpo utziko dira BPGaren %1 (430.000 milioi euro) gainditzen duten inbertsio militarrek. Kristaudemokratek (CDU), Alderdi Sozialdemokratak (SPD) eta Berdeek bultzatu zuten erreforma, eta Friedrich Merz CDUko burua esan zuen “Putinek Europaren aurka egindako gerra” dela horretarako arrazoia. Gastu militarra handitzeaz gain, erreformak aurreikusten du 500.000 milioi euroko funts bat sortzea hamabi urteko eperako, “azpiegiturretan eta babes klimatikoan” gastatzeko.

Poloniak entrenamendu
militarrerako plan bat
ezarriko du gizon heldu
guztientzat

Donald Tusk Poloniako lehen ministroak martxoan aurkeztu zuen gizon heldu guztiei entrenamendu militarra eskaintzeko plan bat, soldadu kopurua milioi erdiraino handitzeko. 2025 amaierarako prest egongo omen da programa, eta “erreserba” bat sortzea da asmoa, gerrarako “mehatxu posibleak” argudiatuta. Tuskek ez du argitu neurriak derrigorrezko soldadutzara itzultzea ekarriko ote duen, baina ekimena “suitsarra bezalako ereduetan” oinarrituko litzatekeela dio, armadan “izena ematea sustatzeko pizgarriekin”.

Gainera, bere esanetan, aukera dago Poloniak Ottawako Konbentziotik eta Dublingo Konbentziotik alde egiteko, “defentsarako gaitasuna indartzeko”. Bi konferentzia horiek murriztu egiten dute zenbait armaren erabilera.



Aurtengo Maiatzaren 1ean ere Bilboko kaleak hartzera deitu du EHKS

Maiatzaren 1ean gerra inperialistaren eta Europako estatuen berrarmatzearen aurka mobilizatzen deitu du Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS), Bilbon. Izan

ere, azaldu du “estatuen gaitasun militarrek areagotzeko planak” ezartzen ari direla Europar Batasunean, “defentsa edo Europaren ‘autonomia estrategikoa’ bermatzeari” aitzakiatzat hartuta.

Gastu militarren igoera eta murrizketa sozialak eskutik doazen modura, “kapitalismoa eta tentsio beliko inperialistak” ere eskutik doazela dio EHKS

Mugimendu Sozialistako antolakundeak uste du EB “desplazatua geratzen” ari dela eta, AEBek “Europako eta Ukrainako gerra finantzatzera” bideratutako inbertsioak zalantzan jartzean, “ber-

rrarmatzeaz diharduten planak biderkatu” dituela. EHKS azpimarratu du, gainera, berrarmatzea “Europako ekonomia hondoratzen ari denean” izaten ari dela eta “oligarkia atlantistaren armagintza-negozio pribatua finantzatzen” ari direla agintariak, bi ondorio eraginez: “gerrarako arriskua” areagotzea eta “murrizketak”.

Gastu militarren igoera eta murrizketa sozialak eskutik doazen modura, “kapitalismoa eta tentsio beliko inperialistak” ere eskutik doazela dio antolakundeak, bestalde. Eta gerrarako gastua handitu bitartean, “estatuen militarizazioa” legitimatzeko “ofentsiba kulturala” hedatu dute agintariek, EHKSren esanetan. Salatu du, or-



dea, “estatuen militarizazioak autoritarismoan sakonduko” duela.

Era berean, “beharrezkoa” denean, “arku parlamentarioko alderdi guztiek” berrarmatzea babestuko dutelakoan dago. Espainiako Estatuan, esaterako, alderdi guztiak “estatuen militarizazioa sustatzen” ari direla dio EHKS. Eta seinatu du “militarizazioaren aurka mintzo diren alderdi sozialdemokratek ere berau bermatuko dutela, egoerak beren baiezko botoa eskatzean”. Frantziako Estatuari dagokionez, “eskalada militarista europarrean” buru izan nahi duela iritziz dio EHKS, gobernuaren asmoa “arma-industria hauspotzea eta barne-gatazkak baretzea” izan daitekeelakoan. “Etengabe ari dira

euren aberriaren defentsaz [...], zerbitzu militarra berriz ezartzea aipatzeraino”, dio.

“Gerrari eta estatuen berrarmatzeari aurre egiteko”, EHKS ezinbestekotzat du “langile-klasearen batasuna”. Baina zehaztu du “sozialdemokrazia kanpoan utzita” egin behar dela hori, eta “iruzur instituzionaletik eta beren alderdietatik kanpo”: “Estatuen militarizazioaren aurkako oposizioa kaleetan antolatu behar dugu”. EHKS defendatu du, beraz, “gerrari eta langile-klasearen pobretzeari aurre egingo dion erreferente iraultzaile bat eratzea” beharrezkoa dela, “nazioartean hedatuta eta herrialde bakoitzean sustraituta”.

Munduko gastu militarra hirukoiztu egin da Gerra Hotzetik

Global Military Spending Dataset-en arabera, munduko gastu militarra hirukoiztu egin da Gerra Hotzaren puntu gorena baino, eta ekonomia handienek beren nagusitasunari eusteko eta negozioa egiteko modu bat aurkitzen dute gatazka belikoetan. *Military Spending and Economic Growth: a 2025 Update* lanak adierazten du, hala, asko handitu dela BPGaren gastu militarren proportzioaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko korrelazioa (1970etik 2023ra, 0,77 puntuko igoera munduan).

Hala ere, hori herrialde batzuentzat soilik da onuragarria, antza. *The Impact of Military Expenditures on Economic Growth: A New Instrumental Variables Approach* ikerketak 133 herrialdetako datuak jasotzen ditu, eta ondorio bat nabarmentzen du: gastu militarren igoerak “garatzeko bidean” dauden herrialdeetako hazkunde ekonomikoa murrizten du. Kasu horietan, batez beste, gastu militarra 3,86 puntu igotzeak 4,40 puntu murriztu dezake hazkunde hori. Armamentismoaren aldeko apustuak, hortaz, abagune kritikoak baltzatzen ditu industria militarren irabaziak ziurtatzeko, sarri garapena eta bakea sakrifikatzearen kontura, munduko biztanleriaren sektore zabalentzat.

Atzo eta gaur, kapitalisten armadari ez!

1986an, NATOn jarraitzearen inguruko erreferenduma egin zen Espainiako Estatuan, eta Hego Euskal Herrian kontrako botoa nagusitu zen. Hamarretik seik baino gehiagok ezetz bozkatu izana garaiko giro mobilizatzailearen erakusgarri da. NATO Mendebaldeko inperialismoaren tresna militar gisa ikusten zen, ezer gutxi zuena eskaintzeko langile-klasearentzat. Asko eskaintzen zuen, ordea, Mendebaldeko burgesiarentzat. Ezezko hori ez zen nahikoa izan, hala ere, eta Felipe Gonzalezek ondo bete zuen enkargua.

Efemeridea Europaren berrarmatzearen gaineko adierazpen sasoiari etorri zaigu. Baina politikarien artean ezbaian dagoena ez da berrarmatzea, berau zein terminotan eta zeinen lidergo-

pean egingo den baino. Trumpek denok genekiena adierazi ostean azkartu da eztabaida: aliantza eta interbentzio militarrek burgesiaren interes ekonomikoen konbenientziaz egiten dira, eta plan berriak dauzkate esku artean. Horrek dakar munduko gastu militarra azken urtean %6,8 hazi izana, eta kontinente zaharra horren gainetik dago: %13. Hartz errusiarrek irentsiko gaituelako pelikula oso erabilgarria ari da izaten.

Betiko atlantistek isiltasunez adierazten dute beren konplizitate, edo adierazpen militarista gordinak egiten dituzte. Behinola NATOri "lehenik eta behin EZ" esan ziotenek, aspaldi eman zuten "Espainiaren intereserako" hura babesteko pausoa. Kameleonak moreek, "zerua asaltatzean" programa politikotik Aliantzaren kontrako aipamenak kendu ostean, ez dute inor engainatuko. Eta zer esan 86an NATOri ezetz esan zioten sektore apurtzaileen ondorengo ofizialtzat agertzen di-

renez. Geroz eta gertuago daukate ezezkotik baiezkorako bira; "Europak segurtasun eta autonomia politiko eta militarreko proiektu bat behar" duela esatea ez dakit jada baiezkotik argi bat ez ote den.

Europaren subiranotasuna aldarrikatzea Mendebaldeko agintarien plaza komun bilakatzen ari da, eta subiranotasun horrek berrarmatzea eta militarizazioa esan nahi du. Horrek Europako burgesiaren bere pisu ekonomikoa eta posizio inperialista galtzeko prozesua galgatzeko nahia du atzetik, baina badakigu nola den hau: gutxiengo pribilegiatuaren interesak guztion interesetat saltzen dira. Aliantza militarren terminoak egokitzeak, ordea, langileon soldataren gutxitzea, eskubideen murriztea, errekrutamentua eta heriotza dakartza. Von Der Leyenek bezala, denok dakigulako nortzuen seme-alabak diren gerrarako bazka eta nortzuenek egingo duten negozioa gerratik.

